



Koordinaziorako Idazkaritza Teknikoa
Secretaría Técnica de Coordinación

Príncipe, 5 - 7.solairua. 702 bulegoa
48001 Bilbao

Tfnoa.: 944 245 656

Fax: 944 232 663

sarea@ikerpartners.com

SAREA EUSKAL ANTZOKIEN SAREKO PANORAMIKA:

EAEko espazio eszenikoak laguntzeko
erakunde arteko plataforma

- 2018 Txostena-

AURKIBIDEA

2018 estatistika ...laburbilduz	3
1.- Emanaldiak	5
2.- Ikusleak	7
3.- Aurrekontua	9
4.- Euskal konpainiak	14
5.- Antzerkia euskaraz	20
6.- Generoa	24
7.- Fitxa teknikoa	26

2018 estatistika...laburbilduz

- ➔ Sarearen eskaintza eszenikoak azken urteetako goranzko joerari eusten dio, eta urteko 2.000 emanaldietara hurbiltzen da, haurrei zuzendutako emanaldiak nabarmen handituz. Tamaina txikiagoko udalerrietan kokatutako antzokietan hazi da gehien eskaintza, baina hiriburuetakoko antzokiek jarraitzen dute programazioaren buru izaten.
- ➔ Publikoak SAREaren eskaintza eszenikoari emandako erantzuna milioi erdi parte-hartzaile ingurukoa izan da, urteetan zehar aurrerapen eta atzerakada txikiak izan baditu ere. Azken urtean emandako ikusleen gorakada bakarra udalerririk txikienetako antzokietan izan da, eta udalerririk horietako gehienetan formatu txikiko antzokiak kokatzen dira. Formatu handiko antzokiek, ordea, ikusleen %13 inguru galdu dute, neurri handi batean publikoarentzako oro har "tiroi" edo erakargarritasun txikiagoa izan dezaketen ikuskizunen programazioaren ondorioz, baita formatu txikiko ikuskizun kopuru handiagoa programatu delako ere, ekoizpen handien kaltetan.
- ➔ Udalek SAREako antzokien kontratazio-gastuaren %80 baino gehiago estaltzen dute, eta %37 berreskuratzen dute leihatilan bildutako diruaren bidez, eta %17 foru-aldundien diru-laguntzaren bidez.

- ➔ Gora egin du euskal konpainien presentziak SAREaren eskaintza eszenikoan, %11 gehiago programatu baitira 2017arekin alderatuta; guztira, sarean parte hartu duten konpainien %45 dira. Hala ere, erdiek baino gehiagok (% 52) emankizun bakarra egin dute, eta ehuneko hori handiagoa da dantza-konpainien kasuan.
- ➔ Euskarazko antzerkia etengabe hazi da azken urteotan, bai emanaldietan, bai ikusle kopuruan. Gaur egun, eskaintzaren %46a osatzen du, eta ikusleen %35 biltzen du, eta, batez ere, haurren antzerki-ekoizpenean kokatzen da. Hala ere, helduen esparruan gero eta gehiago programatzen da azken urteetan: hazkundea % 15 emanaldietan eta % 6 ikusleetan izan da.
- ➔ Antzerkia da SAREako espazio eszenikoetan gehien programatutako generoa, eta joera goranzkoa da: antzezten diren lau emanaldietatik hiru antzerki-lanei dagozkie. Bestalde, dantzak azken urteetan emanaldi eta ikusle ugari galdu ditu. Musikak eta, batez ere, lirikak lider izaten jarraitzen dute emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruan.

1.- EMANALDIAK

2018 Kopurua guztira

1.948 emanaldi

SAREaren eskaintza eszenikoak, azken urteetako goranzko joerari eutsi dio, eta urteko 2.000 emanaldietara hurbiltzen ari da

Haurrei zuzendutako emanaldiak nabarmen gehitu dira. Tamaina txikiagoko herrietan kokatutako antzokietan hazi da gehien eskaintza, baina hiriburuetako antzokiek jarraitzen dute programazioaren buru izaten.

BILAKAERA

Emanaldien %2,8ko bilakaera positiboa, aurreko urtearekin alderatuta. Igoera %7,6koa izan da azken 5 urteetan.

ANTZOKIAREN FORMATUA

Emankizunen %50 formatu handiko antzokietan biltzen dira; beste % 50a antzoki ertain eta txikien artean modu orekatuan banatzen da.

UDALERRIAREN TAMAINA

- 25.000 biztanletik beherako udalerrietan emanaldi kopurua handitu egin da, batez ere txikienetan (%10,3, 7.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan).
- 25.000 biztanletik gorako udalerrietako emanaldi kopurua egonkor mantendu da 2017arekin alderatuta.

IKUSLE MOTA

3 emanalditik bi helduei zuzenduta daude, baina haurrei zuzendutakoak neurri handiagoan hazi dira aurreko urtearekin alderatuta (%5,8, helduentzako emanaldien %1,4ren aldean).

ESTATISTIKA-TAULA OSAGARRIAK

	2018		Bilakaera		
	Absolutua	%	2014-2018	2017-2018	
UDALERRIAREN TAMAINAren araberako emanaldiak	0-7.500	232	%12	%13,3	%10,3
	7.501-25.000	495	%25	%15,0	%5,7
	25.001-100.000	478	%25	-%10,3	%0,8
	100.000 <	743	%38	%16,5	%0,5
	GUZTIRA	1.948	%100		

ANTZOKIAREN FORMATU/MAILAren araberako emanaldiak	Hiriburuetakoko antzokiak	743	%38,1	%16,5	%0,5
	Formatu handia	233	%12,0	-%15,3	-%6,8
	Formatu ertaina	476	%24,4	%7,0	%1,3
	Formatu txikia	496	%25,5	%10,0	%16,1
	GUZTIRA	1.948	%100,0		

IKUSLE MOTAren araberako emanaldiak	Heldua/gaztea	1.305	%67,0	%3,1	%1,4
	Haurrak	643	%33,0	%18,0	%5,8
	GUZTIRA	1.948	%100,0		

2.- IKUSLEAK

2018 Kopurua guztira

494.822 ikusle

Publikoak SAREAren eskaintza eszenikoari emandako erantzuna milioi erdi lagun inguruan finkatu egiten da

Aurrerapen eta atzerapauso txikiak urteetan zehar. Azken urtean izandako ikusleen gorakada bakarra udalerrri txikienetako antzokietan izan da, eta udalerrri horietako gehienetan formatu txikiko antzokiak daude. Formatu handiko antzokiek, ordea, ikusleen %13 inguru galdu dute, neurri handi batean publikoarentzako oro har "tiroi" edo erakargarritasun txikiagoa izan dezaketen ikuskizunen programazioaren ondorioz, baita formatu txikiko ikuskizun kopuru handiagoa programatu delako ere, ekoizpen handien kaltetan.

BILAKERA

495.000 ikusle inguruk parte hartu dute 2018an Sareako antzokietan eskainitako ikuskizunetan. Zifra esanguratsua izan arren, aurreko urtearekin alderatuta, -%4,1eko beherakada txikia izan da.

ANTZOKIAREN FORMATUA

Tamaina txikiagoko antzokiak dira bertaratze-kopurua handitu duten espazio eszeniko bakarrak; zehazki, %20 inguru.

UDALERRIAREN TAMAINA

- Publikoaren ia %60, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan biltzen da.
- Azken urtean, ikusleen hazkunde bakarra 7.500 biztanletik beherako udalerrietako antzokietan eman da (+%4ko hazkundera 2017ko datuekin alderatuta, eta + %7ko hazkundera azken 5 urteetan).

IKUSLE MOTA

Nahiz eta ikusle heldu/gazteak diren ikuskizunetara joaten diren gehienak (%72), gero eta haur gehiago joaten dira urtero SAREAko antzokietara, zehazki, %7 gehiago azken urtean eta %14 gehiago azken 5 urteetan.

ESTATISTIKA-TAULA OSAGARRIAK

		2018		Bilakaera	
		Absolutua	%	2014-2018	2017-2018
UDALERRIAREN TAMAINAREN araberako emanaldiak	0-7.500	22.589	%4,6	%7,0	%4,0
	7.501-25.000	73.087	%14,8	%12,1	-%1,1
	25.001-100.000	108.467	%21,9	-%6,9	-%1,8
	100.000 <	290.679	%58,7	-%4,1	-%6,1
	GUZTIRA	494.822	%100	-%2,3	-%4,1
ANTZOKIAREN FORMATU/MAILAREN araberako emanaldiak	Hiriburuetakoko antzokiak	290.679	%58,7	-%4,1	-%6,1
	Formatu handia	60.877	%12,3	-%5,6	-%6,6
	Formatu ertaina	85.030	%17,2	-%5,1	-%7,1
	Formatu txikia	58.236	%11,8	%20,4	%18,8
	GUZTIRA	494.822	%100,0	-%2,3	-%4,1
IKUSLE MOTAREN araberako emanaldiak	Heldua/gaztea	354.579	%71,7	-%7,4	-%7,9
	Haurrak	140.243	%28,3	%13,7	%7,2
	GUZTIRA	494.822	%100,0	-%2,3	-%4,1

3.- AURREKONTUA

2018 Kopurua guztira

4.168.084 euro¹

Udalek SAREAko antzokien kontratazio-gastuaren % 80 baino gehiago estaltzen dute, eta % 37 berreskuratzen dute leihatilan bildutako diruaren bidez, eta % 17 foru-aldundien diru-laguntzaren bidez.

ADIERAZLE EKONOMIKOEN BILAKAERA¹

- Azken urteetan, emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak eta kostuak 100 € eta 180 € murriztu dira, hurrenez hurren.
- Ikusle bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 7€ - 8€ inguruan mantentzen dira, eta ikusle bakoitzeko batez besteko kostuak 19 € - 20 € ingurukoak dira.
- Kostuen estaldura-tasaren murrizketa dela kausa (%38, 2017an baino 5 puntu gutxiago), okertu egiten da ikuskizunen errentagarritasuna eta programazioak bere burua finantzatzeko duen gaitasuna.

ANTZOKIAREN FORMATUA

- Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarreraren beherakada orokorra azken urtearekin alderatuta; jaitziera hori nabarmenagoa izan da antzoki handienetan (-%19, zehazki 584€, batez beste kopuru absolutuetan), eta antzoki horietan ere emanaldi bakoitzeko batez besteko gastuek behera egin dute (-%9); hala ere, batez bestekoak hobera egin du duela 4 urteko egoerarekin alderatuta.
- Aldian zehar mantendu egin dira emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarreraren (3.000 € inguru) eta gastuen (2.700 € inguru) zifrak, antzoki ertain eta txikietan.
- Ikuskizunen errentagarritasunaren beherakada antzerki-formatu guztietan, neurri handiagoan antzoki handietan (%59ko estaldura 2017an, eta %53koa 2018an).

UDALERRIAREN TAMAINA

- Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak murriztu egin dira biztanleria-tarte guztietan, azken urtearekin alderatuta. Intzidentzia txikiagoa da 7.500 eta 25.000 biztanle bitarteko udalerrietan (-% 8). Gainerako populazio-tarteetan, beherakada -% 15 eta -% 17 artekoa izan da.
- Pixka bat igo dira emanaldi bakoitzeko batez besteko gastuak, udalerrri handietako antzokietan izan ezik (25.000 biztanletik aurrera), horietan kostuak %7 murriztu baitira 2017. urtearekin alderatuta.

IKUSLE MOTA

- Bildutako 10€-tik 7€ helduei zuzendutako emanaldiei dagozkie.
- Haurrentzako ikuskizunek errentagarritasun handiagoa eskaintzen dute (kostuen estaldura-tasa% 40 inguruan kokatzen da) eta azken urteetako joera goranzkoa da.

¹. Sareko antzokien guztizko gastua katxetak ordaintzeko, hiriburuetak antzokietan izan ezik, baina Donostiako Gazteszena eta Lugaritz barne.

ESTATISTIKA-TAULA OSAGARRIAK

ADIERAZLE
EKONOMIKOEN bilakaera

Batez besteko diru-sarrerak emanaldi bakoitzeko
Batez besteko diru-sarrerak ikusle bakoitzeko
Batez besteko kostuak emanaldi bakoitzeko
Batez besteko kostuak ikusle bakoitzeko
Kostuen estaldura-tasa

Bilakaera €-tan		Bilakaera %-tan	
2015-2018	2017-2018	2015-2018	2017-2018
-101€	-211€	-%7,3	-%14,2
-0,7 €	-0,8 €	-%9,1	-%9,9
-181 €	-109 €	-%5,2	-%3,2
-1 €	0,3 €	-%6,9	%1,7
--	--	-%2,3	-%11,4

Kontratazioen gastuaren
banaketa. 2018

Kontratazio-gastuak (katxetak)
Diru-bilketa (txarteldegia)
Aldundien diru-laguntza
Udalen ekarpena

Gastua	
Abs.	%
4.168.084€	
1.569.141€	%37,6
695.508€	%16,7
1.903.435€	%45,7

Adierazle ekonomikoak UDALERRIAREN TAMAINAREN arabera. 2018

	Abs.		%	
	Sarrerak	Gastuak	Sarrerak	Gastuak
0-7.500 biztanle	106.599 €	477.462 €	%6,8	%11,5
7.501-25.000 biztanle	523.206 €	1.651.065 €	%33,3	%39,6
25.001-100.000 biztanle	889.980 €	1.859.976 €	%56,7	%44,6
100.000 < biztanle	49.356 €	179.580 €	%3,1	%4,3
GUZTIRA	1.569.141 €	4.168.084 €		

	Bilakaera €tan		Bilakaera %tan	
	2015-2018	2017-2018	2015-2018	2017-2018
Batez besteko diru sarrerak emanaldi bakoitzeko				
0-7.500	-104 €	-83 €	-%19,8	-%16,6
7.501-25.000	-56 €	-95 €	-%5,1	-%8,4
25.001-100.000	-65 €	-322 €	-%3,4	-%14,7
Batez besteko kostua emanaldi bakoitzeko				
0-7.500	-414 €	8 €	-%16,9	%0,4
7.501-25.000	236 €	109 €	%7,7	%3,4
25.001-100.000	-355 €	-297 €	-%8,4	-%7,1

Adierazle ekonomikoak ANTZOKIAREN FORMATU/MAILAren arabera. 2018

	Abs.		%	
	Sarrerak	Gastuak	Sarrerak	Gastuak
Hiriburuetako antzokiak	49.356 €	179.580 €	%3,1	%4,3
Formatu handia	569.919 €	1.081.145 €	%36,3	%25,9
Formatu ertaina	553.523 €	1.517.182 €	%35,3	%36,4
Formatu txikia	396.343 €	1.390.176 €	%25,3	%33,4
GUZTIRA	1.569.141 €	4.168.084 €		

	Bilakaera %etan	
	2015-2018	2017-2018
Batez besteko sarrerak emanaldi bakoitzeko		
Formatu handia	%1,0	-%19,3
Formatu ertaina	%4,1	-%4,0
Formatu txikia	%8,0	-%2,5
Batez besteko kostuak emanaldi bakoitzeko		
Formatu handia	-%8,0	-%9,2
Formatu ertaina	%5,2	%2,7
Formatu txikia	%3,9	%2,0
Kostuen estaldura-tasa		
Formatu handia	%9,7	-%11,0
Formatu ertaina	-%1,0	-%6,5
Formatu txikia	%4,0	-%4,4

Adierazle ekonomikoak IKUSLE MOTAre araber. 2018

	Abs.		%	
	Sarrerak	Gastuak	Sarrerak	Gastuak
Heldua/Gaztea	1.140.814 €	3.118.402 €	%72,7	%74,8
Haurrak	428.327 €	1.049.682 €	%27,3	%25,2
GUZTIRA	1.569.141 €	4.168.084 €		

	Bilakaera €-tan		Bilakaera %-tan	
	2015-2018	2017-2018	2015-2018	2017-2018
Batez besteko sarrerak emanaldi bakoitzeko				
Heldua/Gaztea	-270 €	-374 €	-%15,5	-%20,2
Haurrak	171 €	73 €	%22,5	%8,5
Batez besteko kostuak emanaldi bajoitzeko				
Heldua/Gaztea	-372 €	-206 €	-%8,5	-%4,9
Haurrak	113 €	76 €	%5,5	%3,6
Kostuen estaldura-tasa				
Heldua/Gaztea			-%7,6	-%16,1
Haurrak			%16,1	%4,8

4.- EUSKAL KONPAINIAK

2018 programatu diren euskal konpainia kopurua

266 konpainia

Euskal konpainien presentzia handitu da SAREaren eskaintza eszenikoan

2017an baino % 11 konpainia gehiago programatu dira, sarean ibili diren konpainien % 45 bilduz. Hala ere, konpainia horien erdiek baino gehiagok (% 52) emanaldi bakarra eman dute, eta ehuneko hori handiagoa da dantza-konpainien kasuan (% 61).

JARDUERAREN BILAKAERA

- Euskal konpainiek % 8 emanaldi gehiago egin dituzte eta % 1 ikusle gutxiago erakarri dituzte azken urtean, baina bilakaeraren ikuspegi zabalago batetik, bi adierazleek beren zifrak hobetu dituzte (% 18 eta % 31, hurrenez hurren).
- Aurreko urtean baino 20 ikusle gutxiago erregistratu dira, baina duela 5 urte baino 22 gehiago.

ANTZOKIAREN FORMATUA

Antzoki txikiak euskal konpainien ikuskizunen bolumenik handiena programatu dute 2018an, zehazki Sarean programatutako euskal konpainien emanaldi guztien % 34.

Euskal konpainien ADIERAZLE EKONOMIKOAK

- Batez besteko diru-sarrerak emanaldi bakoitzeko: 1.285 €, Estatuko konpainiek baino 1.500 € gutxiago
- Batez besteko kostuak emanaldi bakoitzeko: 3.042 €, Estatuko konpainiek baino 1.500 € gutxiago
- Kostuen estaldura-tasa: % 42, aurreko urtean baino 8 puntu gutxiago

GENEROA

Sarean ibili diren euskal konpainien erdiak baino gehiago antzerkiaren diziplinakoak dira, eta ondoren datoz musika-taldeak (% 31), dantza-konpainiak (% 12) eta lirikaren inguruko erakundeak (% 4).

JARDUERA

Euskal konpainiak buru dira emanaldiei eta ikusleei dagokienez, baina atzetik daude emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruari dagokionez:

- Emanaldien % 59
- Ikusleen % 49
- Batez besteko ikusle kopurua emanaldi bakoitzeko: 208 (Estatutik datozen konpainien batez bestekoaren aldean: 336).

ESTATISTIKA-TAULA OSAGARRIAK

Konpainien pisua SAREAn programatutako konpainia guztiekiko,

Jatorriaren arabera. 2018

	Abs.	%
Euskal konpainiak	266	%44,6
Estatuko konpainiak	252	%42,3
Atzerriko konpainiak	78	%13,1
GUZTIRA	596	%100,0

Jatorriaren arabera. (Emanaldiak eta ikusleak). 2018

	Emanaldiak	
	Abs.	%
Euskadi	1.158	%59,4
Estatua	664	%34,1
Atzerria	126	%6,5
GUZTIRA	1.948	%100,0

	Ikusleak		Batez bestekoa
	Abs.	%	
	240.539	%48,6	208
	222.830	%45,0	336
	31.453	%6,4	250
	494.822	%100,0	254

Konpainiek SAREaren eskaintza eszenikoan duten pisuaren bilakaera, jatorriaren arabera (emanaldiak eta ikusleak). 2018

	2014-2018		2017-2018	
Emanaldi kopurua				
Espainia	-%3,1		-%2,5	
Euskadi	%17,8		%8,3	
Atzerria	%9,1		-%11,8	
Ikusle kopurua				
Espainia	-%20,7		-%4,1	
Euskadi	%30,8		-%0,9	
Atzerria	-%0,8		-%22,8	
Batez besteko ikusle kopurua emanaldi bakoitzeko				
Espainia	-%18,2		-%1,6	
Euskadi	%11,0		-%8,5	
Atzerria	-%9,1		-%12,6	

Euskal antzerki eta dantza konpainiak Sarean programatutako emanaldi kopuruaren arabera. 2018

	Antzerkia		Dantza	
	<i>Konpainia kopurua</i>	<i>%</i>	<i>Konpainia kopurua</i>	<i>%</i>
Emanaldi bat	69	%49,6	20	%60,6
2-5 emanaldi	34	%24,5	10	%30,3
6-10 emanaldi	12	%8,6	2	%6,1
10 emanaldi baino gehiago	24	%17,3	1	%3,0
GUZTIRA	139	%100,0	33	%100,0

Konpainien jatorria GENEROaren arabera. 2018

	Euskal konpainiak		Estatuko konpainiak		Atzerriko konpainiak	
	<i>Abs.</i>	%	<i>Abs.</i>	%	<i>Abs.</i>	%
Antzerkia	139	%52,3	173	%68,7	27	%34,6
Dantza	33	%12,4	24	%9,5	18	%23,1
Musika	83	%31,2	51	%20,2	33	%42,3
Lirika	11	%4,1	4	%1,6	0	%0,0
GUZTIRA	266	%100,0	252	%100,0	78	%100,0

	Antzerkia		Dantza		Musika		Lirika	
	<i>Abs.</i>	%	<i>Abs.</i>	%	<i>Abs.</i>	%	<i>Abs.</i>	%
Euskal konpainiak	139	%41,0	33	%44,0	83	%49,7	11	%73,3
Estatuko konpainiak	173	%51,0	24	%32,0	51	%30,5	4	%26,7
Atzerriko konpainiak	27	%8,0	18	%24,0	33	%19,8	0	%0,0
GUZTIRA	339	%100,0	75	%100,0	167	%100,0	15	%100,0

Konpainien jatorria ANTZOKIAREN FORMATU/MAILAren arabera. 2018

	Euskadi		Espainia		Atzerria	
	<i>Emanaldiak</i>	<i>Ikusleak</i>	<i>Emanaldiak</i>	<i>Ikusleak</i>	<i>Emanaldiak</i>	<i>Ikusleak</i>
Hiriburuak	309	102.756	371	165.862	63	22.061
Formatu handiko antzokiak	119	31.114	103	27.603	11	2.160
Formatu ertaineko antzokiak	336	59.216	106	20.408	34	5.406
Formatu txikiko antzokiak	394	47.453	84	8.957	18	1.826
GUZTIRA	1.158	240.539	657	222.830	126	31.453

	Euskadi		Espainia		Atzerria	
	<i>Emanaldiak</i>	<i>Ikusleak</i>	<i>Emanaldiak</i>	<i>Ikusleak</i>	<i>Emanaldiak</i>	<i>Ikusleak</i>
Hiriburuak	%26,7	%42,7	%55,9	%74,4	%50,0	%70,1
Formatu handiko antzokiak	%10,3	%12,9	%15,5	%12,4	%8,7	%6,9
Formatu ertaineko antzokiak	%29,0	%24,6	%16,0	%9,2	%27,0	%17,2
Formatu txikiko antzokiak	%34,0	%19,7	%12,7	%4,0	%14,3	%5,8
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Adierazle ekonomikoak SAREAn programatutako konpainien jatorriaren arabera . Bilakaera

	2015-2018	2017-2018
Batez besteko diru-sarrerak emanaldi bakoitzeko		
Euskal konpainiak	%22,3	-%19,9
Estatuko konpainiak	-%23,3	-%36,6
Atzerriko konpainiak	%45,0	-%21,1
Batez besteko kostuak emanaldi bakoitzeko		
Euskal konpainiak	%13,4	-%4,6
Estatuko konpainiak	-%3,7	-%15,3
Atzerriko konpainiak	%21,6	%4,7
Kostuen estaldura-tasa		
Euskal konpainiak	%7,8	-%16,1
Estatuko konpainiak	-%20,4	-%25,1
Atzerriko konpainiak	%19,2	-%24,6

5.- ANTZERKIA EUSKARAZ

Antzerki emanaldi kopurua euskaraz
2018

680 emanaldi

Euskarazko antzerkia etengabe hazi da azken urteotan, bai emanaldietan, bai ikusle kopuruan.

Gaur egun, eskaintzaren %46 osatzen du, eta ikusleen %35 biltzen du, eta, batez ere, haurren antzerki-produkzioan kokatzen da, nahiz eta gero eta gehiago diren helduen/gazteen artean: %15ko hazkundera emanaldietan, eta %6koa ikusle kopuruan, azken 5 urteetan.

BILAKAERA

- Euskarazko antzerkiaren bilakaera positiboa da: emanaldietan (%13,5) eta ikusle kopuruan (%6) hazi da azken urtean. Hazkunde hori batez ere haurrentzako programazioaren eta asistentziaren gorakadari esker gertatzen da.
- Gaztelaniazko antzerkiak behera egin du emanaldietan (-%9) eta ikusle kopuruan (-%16).

ANTZOKIAREN FORMATUA

Euskarazko programazioaren %64 antzerki txikietan egiten da. Ehuneko hori jaitsi egiten da antzokien formatua zabaldu ahala: %51 antzoki ertainetan, %38 formatu handiko antzokietan.

ADIERAZLE EKONOMIKO BATZUK

- Emanaldi bakoitzeko biltzen diren 10€-tik 3€ euskarazko antzerkitik datoz.
- Kontratazioan inbertitzen diren 10€-tik 2€ euskarazko antzerki-ikuslizunetarako erabiltzen dira.
- Euskarazko antzerkiaren emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak %13 igo dira azken urteotan, eta batez besteko gastua %2.

IKUSLE MOTA

Haurrei zuzendutako 4 emanaldietatik 3 euskaraz egiten dira (%77). Helduentzako emanaldien kasuan, 4tik emanaldi bat baino gehixeago euskaraz irudikatzen da (%27).

JARDUERA

Euskarazko antzerkiak emanaldi kopuru handiena biltzen badu ere, Sarean programatutako ikuskizunetara bertaratutakoen erdiak baino gehiago (% 57) gaztelaniaz egindako emanaldietara joaten dira, eta, gainera, ikuskizun horiek emanaldi bakoitzeko bertaratutakoen ratio altuena adierazten dute (321 ikusle emanaldi bakoitzeko, eta euskarazko emanaldietan, berriz, 183).

ESTATISTIKA-TAULA OSAGARRIAK

Antzerki emanaldien hizkuntza eta ikusle kopurua JARDUERAREN arabera. 2018 eta bilakaera

	Emanaldiak				Ikusleak				Ikusleak emanaldi bakoitzeko		
	Abs.	%	Aldakuntza-tasa		Abs.	%	Aldakuntza-tasa		Aldakuntza-tasa		
			2014-2018	2017-2018			2014-2018	2017-2018	2014-2018	2017-2018	
Euskara	680	%46,4	%30,3	%13,5	124.274	%35,5	-%15,5	-%15,9	183	%6,5	-%7,0
Gaztelania	619	%42,2	%1,7	-%9,0	198.741	%56,8	%11,1	%88,1	321	-%16,9	-%7,6
Testurik gabe	135	%9,2	%10,1	%32,3	23.163	%6,6	-%20,3	-%64,6	172	%0,9	%42,1
Besteak	12	%0,8	%9,1	-%29,4	2.452	%0,7	-%33,4	-%51,3	204	-%27,0	-%49,8
Euskara eta gaztelania	21	%1,4	%100,0	%185,7	1.437	%0,4	-%15,5	-%15,9	68	-%66,7	-%83,0
GUZTIRA	1.467	%100,0			350.067	%100,0			239		

Euskarazko antzerki emanaldiak eta ikusleak PUBLIKO MOTAREN arabera. 2018

Ikusle Helduak/
gazteak

	Emanaldiak		Ikusleak		Batez bestekoa
	Abs.	%	Abs.	%	
Euskara	243	%27,1	31.950	%13,6	131
Gaztelania	571	%63,7	187.179	%79,9	328
Testurik gabe	52	%5,8	11.787	%5,0	227
Beste batzuk	11	%1,2	2.112	%0,9	192
Euskara eta gaztelania	20	%2,2	1.251	%0,5	63
GUZTIRA	897	%100,0	234.279	%100,0	261

Haurrak

	Emanaldiak		Ikusleak		Batez bestekoa
	Abs.	%	Abs.	%	
Euskara	437	%76,7	92.324	%79,7	211,27
Gaztelania	48	%8,4	11.562	%10,0	240,88
Testurik gabe	83	%14,6	11.376	%9,8	137,06
Beste batzuk	1	%0,2	340	%0,3	340,00
Euskara eta gaztelania	1	%0,2	186	%0,2	186,00
GUZTIRA	570	%100,0	115.788	%100,0	1.115

Euskarazko antzerkiaren bilakaera, ikusle motaren eta gainerako hizkuntzekiko duen pisuaren arabera

	2014-2018	2017-2018
Emanaldiak		
Heldu/gazteak	%14,8	-%0,4
Haurrak	%41,0	%23,1
Gainerako hizkuntzen araberako %	%13,4	%8,9
Ikusleak		
Heldu/gazteak	%6,1	-%19,6
Haurrak	%55,4	%18,4
Gainerako hizkuntzen araberako %	%39,3	%13,5

Euskarazko antzerki emanaldiak eta ikusleak ANTZOKIAREN FORMATU/MAILAren arabera. 2018

	Emanaldiak	Ikusleak	% antzerki programazio osoan
Hiriburuetako antzokiak	181	35.809	%33,6
Formatu handiko antzokiak	68	18.634	%38,4
Formatu ertaineko antzokiak	186	35.654	%50,8
Formatu txikiko antzokiak	245	34.177	%63,6

6.- GENEROA

Antzerkia da SAREAko espazio eszenikoetan gehien programatutako generoa, eta joera goranzkoa da

Antzezten diren 4 emanalditik 3 antzerki-lanei dagozkie. Bestalde, dantzak azken urteetan emanaldiak eta ikusleak galdu ditu. Musikak eta, batez ere, lirikak lider izaten jarraitzen dute emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruari dagokionez.

BILAKAERA

Antzerkiak eta musikak programazioa handitu dute azken urtean (%4 eta %12, hurrenez hurren), nahiz eta antzerkiak ikusleak galdu (-% 7). Dantza-emanaldien eta -publikoaren kopuruak nabarmen jaitsi dira (-%13 eta -%8, hurrenez hurren).

ADIERAZLE EKONOMIKO BATZUK

- Emanaldi bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak jaitsi egin dira genero guztietan; beherakada handiena lirikak izan du (-%41) eta txikiena antzerkiak (-%11).
- Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostuak ere murriztu egin dira, neurri handiagoan lirikan (-%32) eta neurri txikiagoan dantzan (-% 1,4).
- Musika da oraindik ere genero errentagarriena, kostuen estaldura-tasa %42koa baita; ondoren, lirika (% 39), antzerkia (% 39) eta dantza (% 29) daude.

IKUSLE MOTA

Txikientzako musika-eskaintza oso txikia da: programatutako musika-emanaldien %4 soilik zuzentzen zaie hurrei, baina eskaintza lirikoa askoz ere zabalagoa da (% 37).

JARDUERA

Antzerkiak programazio eszenikoaren %75 biltzen du, eta SAREAko espazioetara joaten diren ikusleen %71 erakartzen du. Ondoren musika dator, emanaldien %13 eta ikusleen %14rekin. Lirikak emanaldien eta ikusleen ehuneko oso txikiak adierazten ditu, baina modu adierazgarrian nabarmentzen da gainerako generoen aldean, emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuru altuenarekin (729). Dantzari dagokionez, emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopuruaren ratioak emaitza positiboa izan duela eman dezakeen arren (243 pertsona, batez beste), azterketa sakonago batek erakusten du emanaldien %50ean baino gehiagotan ikusleak 200 baino gutxiago izan direla, eta emanaldien %16an, berriz, ikusleen %45 bildu dira, emanaldi bakoitzeko 701 ikusleekin batez beste.

ESTATISTIKA-TAULA OSAGARRIAK

Emanaldien generoa eta ikusleak JARDUERAREN arabera. 2018 eta bilakaera.

	Emanaldiak		Aldakuntza-tasa			Ikusleak		Aldakuntza-tasa			Ikusleak emanaldi bakoitzeko		Aldakuntza-tasa	
	Abs.	%	2014-2018	2017-2018		Abs.	%	2014-2018	2017-2018		2014-2018	2017-2018		
Antzerkia	1.467	%75,3	%14,9	%4,2	350.067	%70,7	-%0,3	-%7,0	239	-%13,2	-%10,7			
Dantza	186	%9,5	-%1,1	-%12,6	45.163	%9,1	%4,5	-%8,1	243	%5,6	%5,2			
Musika	252	%12,9	-%13,0	%12,4	68.234	%13,8	-%9,7	%10,2	271	%3,9	-%2,0			
Lirika	43	%2,2	-%27,6	-%10,6	31.358	%6,3	-%13,5	%9,8	729	%19,5	%22,9			
GUZTIRA	1.948	%100,0			494.822	%100,0								

Emanaldien generoa eta ikusleak, ikusle motaren arabera. 2018

	Emanaldiak		Ikusleak	
	Heldua	Haurra	Heldua	Haurra
Antzerkia	%61,1	%38,9	%66,9	%33,1
Dantza	%74,7	%25,3	%81,9	%18,1
Musika	%96,0	%4,0	%97,2	%2,8
Lirika	%62,8	%37,2	%54,2	%45,8

Dantza-emanaldien banaketa, erakartzen duten ikusle kopuruaren arabera. 2018

	Emanaldiak	Ikusleak
500 ikusle edo gehiago	29	20.325
200etik 499 ikusle bitarte	54	15.599
200 ikusletik behera	103	9.239
GUZTIRA	186	45.163

Emanaldien adierazle ekonomikoen bilakaera, generoaren arabera

	2015-2018	2017-2018
Emanaldi bakoitzeko batez besteko sarrerak		
Antzerkia	-%7,9	-%10,9
Dantza	-%27,3	-%27,7
Musika	%25,9	-%19,9
Lirika	-%45,2	-%41,2
Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostuak		
Antzerkia	-%2,6	-%2,3
Dantza	-%18,8	-%1,4
Musika	%9,9	-%3,3
Lirika	-%39,7	-%31,8

7.- FITXA TEKNIKOA

Informazioaren jatorria:

- Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek emandako informazioa, SAREAko antzoki eta aretoen Aldundietako diru-laguntzen eskaeretan oinarrituta.
- SAREAko antzokiek eta aretoek emandako informazio osagarria.
- Hiriburuen kasuan (Gasteiz, Donostia eta Bilbo), antzokiek zuzenean emandako informazioa.
- Bigarren mailako informazio-iturriak (jarduera-memoriak, programazioak edo dosierrak), bildutako informazioa osatzeko, homogeneizatzeko edo arazteko (ikuskizunaren eta konpainiaren izena, generoa, publiko mota, ikuskizunaren hizkuntza, konpainiaren jatorria, etab.).

Erantzun indizea (analisian erabilitako oinarriak)

- 2018ko jarduerari buruzko informaziorako: 59 antzokitik 52
- 2018. urteari dagokion informazio ekonomikorako: 59antzokitik 47
- Jardueraren bilakaerari buruzko informaziorako (2014-2018): 59antzokitik 53 antzoki (aztertutako aldiko urte guztietan informazioa eman duten antzokiak)
- Bilakaera ekonomikoari buruzko informaziorako (2015-2018): 59antzokitik 46 antzoki (aztertutako aldiko urte guztietan informazioa eman duten antzokiak)

Aztertzen diren aldagaiak:

- 2018an SAREAko antzoki eta aretoetan egindako antzerki-, dantza-, musika- eta lirika-ikuskizunetara joan diren **ikusleak**.
- 2018an SAREAko antzoki eta aretoetan egindako antzerki-, dantza-, musika- eta lirika-ikuskizunen **emanaldiak**.
- 2018an SAREAko antzoki eta aretoetan antzerki-, dantza-, musika- eta lirika-ikuskizunak programatzeko **aurrekontua**.

Aldagai nagusiak aztertzeko erabilitako sailkapen-aldagaiak:

- **Udallerriaren tamaina** (0-7.500 biztanle; 7.501-25.000 biztanle; 25.001-100.000 biztanle; 100.000 biztanletik gora)
- **Antzokiaren formatua** (hiriburuetako antzokiak; formatu handia; formatu ertaina; formatu txikia): programazio-bolumenaren eta urteko kontratazio-gastuaren arabera ezartzen da formatu mota.
- **Publiko mota** (Heldua/Gaztea; Haurrak): SAREako antzoki eta aretoetan antzerki-, dantza-, musika- eta lirika-emanaldietara joaten diren ikusle mota.
- **Generoa** (antzerkia, dantza, musika, lirika): SAREako antzoki eta aretoetan antzeztutako ikuskizunen diziplina artistikoa.
- **Hizkuntza** (testurik gabea, euskara, gaztelania, beste batzuk, elebiduna, euskara-gaztelania, hainbat); SAREako antzoki eta aretoetan antzezpenak garatzen diren hizkuntza.
- **Konpainiaren jatorria** (Euskadi, Estatua, Atzerria)

Ratioak:

- **Emanaldi bakoitzeko batez besteko ikusle kopurua:** ikuskizunetara joan diren pertsona kopurua zati emanaldi kopurua
- **Emanaldi bakoitzeko batez besteko kostuak:** kostuak zati emanaldi-kopurua
- **Emanaldiaren araberako diru-sarrerak:** diru-sarrerak zati emanaldi kopurua
- **Gastuen estaldura-tasa:** diru-bilketak konpainien kontratazio-kostuak estaltzen dituen ehunekoa (diru-sarrerak/kostuak)